

MENDARO BERRI

05
2021/7

Legealdi erdiko balantzea	02-04
Industria	05
Herri jasangarria	06-07
Laburrak	08-09
Azpilgoeta eraberritua	10-11

Iñaki Aguirre, alkatea

**«LEGEALDI
AMAIERAN LAU
URTETAN ZEHAR
EGINDAKO LANAZ
HARRO SENTITU
NAHIKO NUKE»**

**«SERA UNA PRÓXIMA
MITAD DE LEGISLATURA
QUE TRAERÁ MUCHOS
NUEVOS PROYECTOS
Y RESULTADOS DEL
TRABAJO REALIZADO»**

08

**EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO
ABRE LA LÍNEA DE AYUDAS PARA
EL ALQUILER DIRIGIDAS A LA
JUVENTUD DEL MUNICIPIO**

10 -11

**AZPILGOETAREN ERABERRITZE
INTEGRALA AMAITU DU UDALAK,
AUZOAREN IRIGARRITASUNA
NABARMEN HOBETUZ**



Iñaki Aguirre, alkatea

.....

"BULTZATZEN ARI GAREN PROIEKTU GUZTIAK MENDAROTARREI BIZI KALITATE ONA ETA AUKERAK ESKAINTZERA DAUDE BIDERATUTA"

Bi urte dira alkate izendatu zizute- la. Nola aurkitzen zara orain?

Ondo aurkitzen naiz, oso gogotsu. Oso garai gogorra izan da 2020ko martxoaz geroztikoa, Covid-19aren pandemiak eztanda egin zuenetik. Bi-tarte horretan gure premisa mendarotarrak babestea izan da, herriak errit-moa galdu gabe, oraina eta etorkizuna oso presente izanaz. Logikoki zuzenki eragin du nire jardunean pandemiak, baita animoan ere, hori ukazina da, eta Udal Gobernuak ezarriak genituen lehentasunak mantenduz, fokoa

jarri dugu %100-ean herritarren ongizatearen bermean. Pandemiak une zailak ekarri ditu gurera, baina baita herritarrengatik askoz gertu-
go egotea ere, inoiz baino gehiago urruntze soziala mantendu behar izan dugunean. Hori asko baloratu dut, eta medikamentuak edota erosketak etxera eramatean musukoen atzean nabarmentzen zen irribarre bakoitzak pilak kargatu dizkigu. Ilusio garaian aurkitzen gara, aurrera begiratzeko unean. Mendarok etorkizun oparoa du aurretik.

Nolakoa da zure egunerokoa? Nola antolatzen zara lanean?

Nire egunerokoa nahiko ezberdina izan ohi da egunaren arabera. Familia asko baloratzen dut eta gertukoene-kin ditudan momentuak errespetatu eta baliatzen saiatzen naiz. Gainera-koan, 24 orduz naiz alkate, eta herri txikia izanik, udal zereginetan zein eguneroko saltsetan ibili ohi naiz.

2019-23 Plangintza estrategikoa osatu zenuten legealdi hasieran. Zein puntutan aurkitzen da?

Guztira 5 helburu estrategikoren baitan osatu genuen legealdi plana, proiektu ugariekin, baina bereziki, 8 estrategikotzat jotzen ditugunak: zubi berria, ospitaleko igogailua, etxebizitza aukera berriak, jasangarritasun eta energia berriztagarrietara saltoa, futbol zelai berria, eremu industrialaren mantenua eta sustapena, herri irisgarriagoa eraikitzea, eta landa inguruari babesa, inbertsioak bultzatuz. Eta guztiak dira abian. Batzuk argia ikusi dute jada: Azpilgoetaren eraberritzea, plaka fotovoltaikoak ikastolan, landa bideak berritzeko 150.000 euroko inbertsioa 2021ean... Zubiarekin aurrera goaz, etxebizitzekin eta futbol zelaiaren proiektuarekin ere, igogailuaren proiektua idazten ari dira... ni oso pozik nago, garai zailak bizi arren, ez dugulako ezer gelditu behar izan, eta mendarotarrei emandako

hitza betetzen ari garelako. Hori dut obsesio: mendarotarrekin hartutako konpromisoa bete eta herri hobe bat uztea etorkizuneko belaunaldiei.

Bertan zehazten da herritarren ongizatea lehentasuna dela.

Gure jardunaren erdigunean beti dago mendarotarren ongizatea. Zerbitzu, proiektu... guztiak mendarotarrei bizi kalitate hobea emateko daude pentsatuak, guztiaren gainetik. Pandemian Gizarte Zerbitzuak inoiz ez bezala indartu ditugu eta, egun, udalera sartzen den eskaera oro, behin oniritzi teknikoarekin, laguntzen da eskura ditugun baliabide guztiekin, %100. Herritarrengan inbertitzen dugu.

Maila ekonomikoan zein aurreikuspen duzue?

Egoera hobetzen doa eta hori berri oso ona da enpleguari begira. Industriagune aproposak nahi ditugu, egungo beharrei egokituak, enpresak mantendu, berriak erakarri, eta kalitatezko enplegu aukerak eskaintzeko. Hor kokatzen da berriki Kurtze Gain industriaguneko seinalezpenaren berritzea. Tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuak babestu eta indartzeko, erosketa bonoak, hobariak, diru-laguntza zuzenak... bultzatu ditugu. Garen herri txikirako, sektore oro gehien lagundu duenetako bat gara. Apustua garrantzitsua izan da.

Irisgarritasun lan ugari ari zarete burutzen ere?

Irisgarritasun lan txikiak uneoro ari gara burutzen. Proiektu handiagoetara joz, Zelaikua plazan eta Azpilgoetan irisgarritasun lan oso garrantzitsuak egin ditugu. Hurrengo pausua Ospitaleko Igogailua izango da. Urteko azken hiruhilekoan hasiko dira obrak. Zuzenki eragingo du mendarotarren ongizatean. Herri irisgarri, jasangarria eta atsegina dugu jomuga.

Herri jasangarriago baten alde egin nahi duzuela diozu

Etorkizun berdea bultzatu nahi dugu. Argiteria LED sistemara eraldatzeko urtero egiten ditugu inbertsioak, eta orain, energia bera era jasangarrian lortzeko pausua ematen ari gara. Ikastolan eguzki plakak ezarriko dira uda honetan. Energia berdea gure txikien egunerokoa argizatuz. Plan handi baten lehen pausua da, emaitzen arabera udal eraikin gehiagotara

zabalduko dugu ekimena. Eta nola ez, herritarrek ere aukera hori izatea nahi dugu bermatu, eta gutxi barru, izango dugu Mendaron bertan aukera hori.

Etorkizunera begira, azken bi hamarkadetako zubiaren proiektua duzue eskuartean?

Duela askotik datorren proiektua da, baina udal gobernu honek soilik eman ditu pausu errealek egikaritu ahal izateko. Hain zuzen, duela egun gutxi elkartu nintzen Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariekin Udalak gauzatu dituen azken ingurumen txostenak aztertzen. Ez da proiektu erraza, inbertsio handia du, baina konbentziturata nago eta gaude gure taldean herritarrentzako oso beharrezkoa dela. Legealdi honetan eginda ez dugu ikusiko, noski, baina bai bideratuta eta inoiz baino gertuago. Zubi zaharra legealdi honetan berri-

tuko dugu. Etorkizunera begira ere 86 etxebizitza berri Azpilgoetan, futbol zelaia, igerileku estali-gabe bat ere lantzen ari gara... Berri eta egindako lanaren emaitza asko ekarriko dituen legealdi erdia izango da datorrena.

Nolako Mendaro irudikatzen duzu legealdia amaitzerako?

Legealdi amaieran lau urtetan zehar egindako lanaz harro sentitu nahiko nuke, Mendaro hobe bat utzi, egindako lana Mendaro eta mendarotarren onurarako izan dela sentitu, alegia. Unea nahi dut baliatu, gainera, mendarotar guztiei eskerrak emateko. Ahalegindu gara, baina ziur ez dugula guztian asmatu, baina herritarren inplikazioari esker, gehiago eta hobeto jardun dugu Mendaro elkarlanean eraikitzen, eta hori balioan jarri eta eskertzekoa da. Mila esker.

• • • • •

"TODOS LOS PROYECTOS QUE ESTAMOS IMPULSANDO ESTÁN ORIENTADOS A OFRECER, A LAS Y LOS MENDAROTARRAS, UNA BUENA CALIDAD DE VIDA Y NUEVAS OPORTUNIDADES"

Ya han pasado dos años desde tu nombramiento como alcalde.

¿Cómo te encuentras ahora?

Me encuentro bien, muy entusiasmado. Desde marzo de 2020 hemos vivido una época muy dura, cuando estalló la pandemia de la Covid-19. En todo este periodo de tiempo nuestra premisa ha sido proteger a las y los mendarotarras, sin que el municipio pierda el ritmo y teniendo muy en cuenta el presente y el futuro. Lógicamente la pandemia ha influido directamente en mi labor, incluso en el ánimo, eso es innegable, y manteniendo las prioridades que teníamos establecidas como Gobierno Municipal, hemos puesto el 100% de nuestro foco en la garantía del bienestar de la ciudadanía. La pandemia nos ha traído momentos difíciles, pero también nos ha hecho estar mucho más cerca de las y los mendarotarras en el momento de mayor distanciamiento social. Eso lo he valorado mucho, y cada sonrisa que atisbaba detrás de las mascarillas de las personas al

llevarles los medicamentos o la compra a casa nos ha cargado las pilas. Nos encontramos en tiempos de ilusión y es el momento de mirar hacia adelante. Mendaro tiene un futuro prometedor por delante.

¿Cómo es tu día a día? ¿Cómo te organizas en el trabajo?

Mis días son bastante diferentes los unos de los otros. Valoro mucho a la familia e intento respetar y aprovechar mis momentos con las y los más cercanos. Por lo demás, soy alcalde las 24 horas, y siendo un municipio pequeño, suelo andar tanto en tareas municipales como en las "salsas" diarias.

Al comienzo de la legislatura completasteis el Plan estratégico 2019-23. ¿En qué punto se encuentra?

Completamos el plan de legislación dentro de un total de 5 objetivos estratégicos, con numerosos

proyectos, pero especialmente 8 que consideramos estratégicos: el nuevo puente, el ascensor al hospital, las nuevas oportunidades de vivienda, el salto a la sostenibilidad y las energías renovables, el nuevo campo de fútbol, el mantenimiento y promoción de la zona industrial, la construcción de un municipio más accesible, y el apoyo al medio rural, impulsando las inversiones. Y todos ellos están en marcha. Algunos ya han visto la luz: la reforma de Azpilgoeta, las placas fotovoltaicas en la ikastola, la inversión de 150.000 euros en renovación de caminos rurales en 2021... Continuamos avanzando con el puente, y también con el proyecto de las viviendas y del campo de fútbol, el proyecto del ascensor está en fase de redacción... Yo estoy muy contento porque, a pesar de vivir tiempos difíciles, no hemos tenido que parar nada y estamos cumpliendo con nuestro compromiso y nuestra palabra hacia las y los mendarotarras. Esa es mi obsesión: cumplir con el compromiso adquirido con la ciudadanía y dejar un municipio mejor a las generaciones futuras.

En él se detalla que el bienestar de la ciudadanía es prioritario.

El bienestar de las y los mendarotarras es siempre el principal eje de nuestra labor. Todos los servicios, proyectos... están pensados para ofrecer una mejor calidad de vida a las y los mendarotarras, por encima de todo. Durante la pandemia hemos reforzado como nunca los Servicios Sociales y, en la actualidad, toda solicitud que accede al Ayuntamiento recibe su ayuda una vez recibe el visto bueno del personal técnico y teniendo en cuenta siempre los recursos disponibles. 100%. Invertimos en la ciudadanía.

¿Qué previsiones tenéis a nivel económico?

La situación va mejorando y eso es una muy buena noticia de cara al empleo. Queremos espacios industriales adecuados, adaptados a las necesidades actuales, que mantengan las empresas, atraigan nuevas, y ofrezcan oportunidades de empleo de calidad. Ahí se sitúa recientemente la renovación de la señalización del polígono industrial Kurtze Gain. Hemos im-



«Unea nahi dut baliatu mendarotar guztiei eskerrak emateko. Ahalegindu gara, baina ziur ez dugula guztian asmatu, baina herritarren inplikazioari esker, gehiago eta hobeto jardun dugu Mendaro elkarlanean eraikitzen, eta hori balioan jarri eta eskertzekoa da»

pulsado bonos de compra, bonificaciones, subvenciones directas... para apoyar y reforzar el comercio local, la hostelería y los servicios. Para ser un municipio pequeño, somos de los que más ha ayudado a todos los sectores. La apuesta ha sido importante.

¿También estáis realizando diversos proyectos de accesibilidad?

Estamos llevando a cabo pequeñas obras de accesibilidad continuamente. En cuanto a proyectos mayores, hemos realizado trabajos de accesibilidad muy importantes en Zelai-koia plaza y Azpilgoeta. El siguiente paso será el ascensor del hospital. Las obras comenzarán en el último trimestre del año. Incidirá de forma directa en el bienestar de las y los mendarotarras.

Dice que quieren apostar por un municipio más sostenible

Queremos impulsar un futuro verde. Cada año realizamos inversiones para pasar el actual alumbrado al sistema

LED, y ahora estamos dando pasos para conseguir esa misma energía de forma sostenible. Este verano se instalarán placas solares en la Ikastola de forma que la energía verde iluminará el día a día de nuestras/os pequeñas/os. Es el primer paso de un gran plan, y es que en función de los resultados vamos a extender la iniciativa a más edificios municipales. Y cómo no, queremos garantizar que la ciudadanía también tenga esa oportunidad, y dentro de poco, tendremos esa posibilidad en el propio Mendaro.

¿De cara al futuro, tenéis entre manos el proyecto del puente de las dos últimas décadas?

Es un proyecto que viene de hace mucho tiempo, pero que sólo este gobierno municipal ha dado pasos reales para poder ejecutarlo. Precisamente hace pocos días me reuní con representantes de la Diputación Foral de Gipuzkoa para analizar los últimos informes medioambientales realizados por el Ayuntamiento. No es un proyecto fácil, requiere una gran inversión, pero estoy y estamos convencidos de que es un proyecto muy necesario para la ciudadanía. En esta legislatura no lo veremos concluido, pero sí encauzado y más cerca que nunca de hacerse realidad. Renovaremos el viejo puente en esta legislatura. De cara al futuro también estamos trabajando en 86 nuevas viviendas en Azpilgoeta, el campo de fútbol, una piscina al aire libre... Sera una próxima mitad de legislatura que traerá muchos nuevos proyectos y resultados del trabajo realizado.

¿Qué tipo de Mendaro imaginas para el final de la legislatura?

Al final de la legislatura me gustaría sentirme orgulloso del trabajo realizado a lo largo de cuatro años, dejar un Mendaro mejor, es decir, sentir que todo nuestro trabajo y esfuerzo ha sido en beneficio de Mendaro y de las y los mendarotarras. Asimismo, quisiera aprovechar estas líneas para dar las gracias a toda la ciudadanía. Nos hemos esforzado, y seguro que no hemos acertado en todo, pero gracias a la implicación ciudadana hemos actuado más y mejor en la construcción colaborativa de Mendaro, algo que debo y quiero poner en valor y agradecer. Muchas gracias.

KURUTZ GAIN INDUSTRIAGUNEKO SEINALIZAZIOA BERRITU DU MENDAROKO UDALAK

Mendaroko Udalak, seinalizazio egoki batek duen garrantziaren jakitun, Kurutz Gain industria-guneko seinalizazioa hobetzeko lanak burutu ditu.

Hain zuzen, aipatu eremuko seinalizazio horizontalean zein bertikalean egin ditu aldaketak. Batetik aparkalekuak, oinezkoen pasabideak, mugikortasun urriko pertsonen dagozkien aparkalekuak... margotu ditu, aurrerantzean eremu bakoitza ondo bereizita egon dadin eta horrez gain, hainbat seinale bertikal ere jarri ditu,

besteak beste, oinezko pasabideei edota mugikortasun urriko pertsonen aparkalekuei dagozkienak.

Lan horiek guztiak Paskin enpresak eraman ditu aurrera eta 3.930,65€ko aurrekontua izan dute (BEZ kanpo). Lanen helburua izan da industria-guneko espazioa ondo antolatu eta seinalezatzea, horren erabilera egokia bermatzeko, eta, bide batez, bertan lan egiten duten edo bertatik igarotzen diren oinezkoen segurtasuna hobetu eta bermatzeko ere, horretarako behar adina seinale jarriaz.



EL AYUNTAMIENTO RENUEVA LA SEÑALIZACIÓN DE LA ZONA INDUSTRIAL DE KURUTZ GAIN

Ha realizado cambios tanto en la señalización horizontal como en la vertical del polígono industrial. Por un lado, ha pintado los aparcamientos, pasos peatonales o aparcamientos correspondientes a las personas con

movilidad reducida, para que en adelante cada zona esté bien diferenciada y, además, ha colocado una serie de señales verticales, como las correspondientes a los pasos de peatones o a los aparcamientos de personas con movilidad reducida.

La empresa Paskin ha sido la encargada de llevar a cabo todos estos trabajos y han contado con un presupuesto de 3.930,65 € (IVA no incluido). El objetivo ha sido ordenar y señalizar el espacio del complejo industrial, mejorando y garantizando un adecuado uso del espacio y a su vez, también la seguridad de las y los peatones que trabajen o pasen por la zona, disponiendo de la señalización suficiente para ello.



HERRI BERDEAGO ETA JASANGARRIAGO BATEN ALDEKO APUSTUAN, 96 EGUZKI PLAKA JARRIKO DITU MENDAROKO UDALAK IKASTOLAKO ERAIKINEAN



Lehen aldia da Mendaron horrela-ko instalazio mota bat egiten dela, herri berdeagoa, ekologikoagoa, ingurumenarekiko zaintzan arduratsuagoa eta jasangarriagoa ginez

• • • • •

Trantsizio energetikoaren bidean eta energia eraginkortasunaren aldeko apustu zein konpromisoari helduta, Mendaroko Udalak energia berriztagarrien alde egin du jauzi eta lehen aldiz, azken horiekin loturiko instalazio bat jarriko du abian herrian.

Hain zuzen eguzki plakak jarriko ditu Ikastolako eraikinean, guztira 96 plaka. Lan horiek Ekilor enpresak burutuko ditu uztailetik aurrera, Ikastola itxita dagoela aprobetxatuz. Aurrekontua, halaber, 48.090,34 eurokoa da (BEZ barne).

Instalazio honen helburu nagusia eraginkortasunarekiko bidean urratsak ematea da, eguzki plakei esker, energia berdea lortuko baita ikastolako eraikina hornitzeko. Plaken angeluak, halaber, (teilatua angelu berdina, 10°), bereziki goizeko eguzkia aprobetxatzea ahalbidetuko du, ikastolako gehiengo energia kontsumo orduak hornitzeko.

Gainera, ekoiztutako energia soberakinarekin 500 metroko eremuan dauden gainerako udal eraikinak ere hornitu ahal izango dira.

Horrela, eguzki plakek eskaintzen duten teknologia berriztagarriei esker, plakek sortutako energia korrontea korronte alferno bilakatu da eta hori zuzenean kontsumitu edo energia sarera gehitu ahal izango da. Horrela, urteko 3.400 euroko aurrezki lortuko da energia kontsumoan.

Aurrezki horrek, era berean, eraginkortasunaren eta jasangarritasunaren bidean aurrera pausoak ekarriko ditu herrira. Izan ere, energia berriztagarrietarantz lanean ari da Udala, alor horretan Mendaro zein mendarotarrek urratsak eman ditzaten alternatiba desberdinak lantzen. Ildo horretatik, instalazio berri honen datuei jarraiki, etorkizunean hori bera herriko beste eraikinetara zabaltzea aztertuko du Udalak.

“Lehen aldia da Mendaron horrelako instalazio mota bat egiten dela eta gure helburua da energia berriztagarrien aldeko urratsak ematea, energetikoki eraginkorrak izateko eta Mendaro herri berdeagoa, ekologikoagoa, ingurumenarekiko zaintzan arduratsuagoa eta jasangarriagoa izan dadin”, amaitu du Iñaki Arregui alkateak.

EN SU APUESTA POR UN MUNICIPIO MÁS VERDE Y SOSTENIBLE, EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO INSTALARÁ 96 PLACAS SOLARES EN EL TEJADO DE LA IKASTOLA

Con el excedente de energía producida se podrán abastecer los edificios municipales que se encuentren en un radio de 500 metros.

• • • • •

Concretamente colocará paneles solares en el tejado de la Ikastola, un total de 96. La empresa Ekilor será la encargada de su instalación, trabajo que llevará a cabo a partir de julio aprovechando el cierre del centro educativo durante el periodo estival. El presupuesto es de 48.090,34 euros (IVA incluido).

El principal objetivo de esta instalación es avanzar hacia la eficiencia energética, ya que, gracias a las placas solares, se obtendrá energía verde para abastecer el citado edificio. Además, el ángulo de las placas (será el mismo que el del tejado, 10°) permitirá aprovechar el sol de la



mañana, abasteciendo así las horas de mayor consumo energético del centro educativo.

Además, con el excedente de energía producida se podrán abastecer los edificios municipales que se encuentren en un radio de 500 metros.

De esta forma, gracias a la tecnología que ofrecen las placas solares, la corriente de energía generada por las placas se convertirá en corriente alterna que podrá ser consumida directamente o incorporada a la red energética, consiguiendo así un ahorro de 3.400 euros anuales en el consumo de energía.

Un ahorro que, a su vez, hará que Mendaro avance en su camino hacia la eficiencia y la sostenibilidad. De hecho, el Ayuntamiento está trabajando en la instalación y consumo de energías renovables, ofreciendo alternativas en este ámbito con el fin de que Mendaro y las y los mendarotarras den el paso hacia ellas. Así pues, atendiendo a los datos que genere dicha instalación, el Ayuntamiento estudiará la posibilidad de ampliar esta misma a otros edificios del municipio.

“Esta esta la primera vez que se realiza una instalación de este tipo en Mendaro y el objetivo es avanzar en el camino hacia las energías renovables para lograr una mayor eficiencia energética y hacer de Mendaro un municipio más verde, ecológico, sostenible y respetuoso con el medioambiente”, ha concluido el alcalde, Iñaki Arregui.

PARRILA BERRIA JARRI DU MENDAROKO UDALAK SANTAKUTZEKO AISIALDI-GUNEAN



U da sasoia eta eguraldi ona heldu dela aprobetxatuz, Mendaroko Udalak Santa Krutzeko aisialdi-gunea atondu eta prest uzteko lanak burutu ditu azken egunotan.

Esaterako parrila berria jarri du bertan, egun pasa bazkaltzera edo afaltzera joaten direnek janaria prestatzeko erabili ahal dezaten. Iaz ezarritako barbakoia bikoitzari, beraz, beste berri bat gehitu dio

aurtengoan, herritarren gozamenarako. Horrekin batera, baita ere iaz ezarritako mahai zein eserlekuetako egurrezko taulak ere konpondu dira.

Asmoa da, Santa Krutzeko eremua familia edo lagunartean egun pasa egiteko espazio edo bilgune atsegina bilakatzea. Horretarako, iaz egindako eraberritze lanei aurtengo hobekuntzak gehitu dizkio Udalak, mendarotarrei beharrezko azpiegiturak eskaintzeko helburuz.

• • • • •

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO INSTALA UNA NUEVA PARRILLA EN EL MERENDERO DE SANTAKUTZ

Concretamente ha instalado una parrilla nueva para que las personas que vayan a pasar el día y comer o a cenar puedan hacer uso de ella y preparar allí una parrillada. Junto a ello, también se han reparado las tablas de madera de las

mesas y asientos que se instalaron en el merendero el año pasado. A las instalaciones realizadas el año pasado el Ayuntamiento añade este año nuevas mejoras con el objetivo de ofrecer a las y los mendarotarras infraestructuras de calidad.

LABURRAK

MENDAROKO UDALAK UEMAREN 'BERTATIK BERTARA' KANPAINAREKIN BAT EGIN DU, BISITARIEKIN HARREMANA EUSKARAZ BULTZATZE ALDERA

Bertatik Bertara kanpaina abiatu du UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eta beste hainbat udal eta garapen agentziak bezala, horrekin bat egin du Mendaroko Udalak ere. Kanpainaren helburua da udalerrri euskaldunetara jotzen duten bisitariak zein bisitariekin harreman zuzena izaten duten zerbitzuen sektoreko arduradun eta langileek euskara aintzat hartzea. "Bertako hizkuntza ere kalitatea eta hurbiltasuna erakusteko ezinbesteko osagaia da", mankomunitatearen esanetan.

Bisitariari arreta erdaraz eskaintzea bertako hizkuntza alde batera uztea dela nabarmendu dute bi aldeek. Hortaz, euskaraz egin edota gutxienez oinarritzko esamoldeak euskarazkoak izan daitezten gonbita egin diete ostalariari. Hori horrela, mahai gainekoak banatuko dituzte sektoreko establezimenduen artean. Zenbait oinarritzko esamolde euskaraz zein beste hainbat hizkuntzatan nola esaten diren erakusten dute, koadro baten bidez, bisitariak ere ahotan euskara erabil dezaten. Mendaroko Udalak banatu ditu.



MARTXAN DA MENDAROKO GAZTEEI ZUZENDURIKO ALOKAIURAKO DIRU-LAGUNTZA LERROA

Laguntza horren bitartez etxebizitza alokatzeagatik ordaindu beharreko hileroko kuota lagunduko da diruz, eta kasu honetan, kontuan hartuko diren errentak 2020 urtekoak eta ondorengoak izango dira.

Diru-laguntza eskatzeko bete-beharreko baldintza nagusienak ondorengoak dira: 18 eta 35 urte bitartean izatea, gutxienez 2 urtez Mendaron erroldatuta egotea edota diru-sarreraren muga: Elkarbizitza unitatea kide bakarrekoa denean urteko gutxienez 10.000€ gordin baino gehiagoko eta 28.000€ gordin baino gutxiagoko diru-sarrera izatea. Elkarbizitza unitatea bi kide edo gehiagokoa denean urteko gutxienez 18.000€ gordin baino gehiagoko eta 44.000€ gordin baino gutxiagoko diru-sarrera izatea.

Ildo beretik, dirulaguntzaren zenbatekoa diru-sarreraren arabera izango da eta pertsona edo bizikidetzaren unitate onuradun bakoitzari emandako gehienekoa 250 euroko laguntza izango da. Edozein kasutan, laguntza hori jaso ahal izateko alokairuaren prezioak ezingo du 700€ baino altuagoa izan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioaren zein laguntza deialdiaren inguruko informazio gehigarria eskuragarri dago www.mendaro.eus webgunean.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO ABRE LA LÍNEA DE AYUDAS PARA EL ALQUILER DIRIGIDAS A LA JUVENTUD

Mediante dicha ayuda, se subvencionará la renta mensual por el alquiler de la vivienda y las rentas a considerar serán las correspondientes al año 2020 y siguientes.

Los principales requisitos para acceder a esta ayuda son las siguientes: Tener una edad comprendida entre 18 y 35 años, estar empadronada en el municipio de Mendaro durante al menos 2 últimos años ininterrumpidos o límite de ingresos, entre otros: En caso de unidades de convivencia de un solo miembro, los ingresos mínimos anuales deben de ser superiores a 10.000€ brutos y los máximos de 28.000 euros brutos. En caso de unidades convivenciales de dos o más miembros, los ingresos mínimos anuales deben de ser de 18.000 euros brutos anuales y los máximos, anuales también, de 44.000 euros brutos.

Asimismo, la cuantía de la ayuda variará en función de los ingresos y cada persona o unidad convivencial beneficiaria recibirá un máximo de 250 euros. En cualquier caso, el precio del alquiler de la vivienda no podrá superar los 700 euros.

Toda la información en www.mendaro.eus.

ALKORTA ETA SAHATSU BASERRIETARAKO LANDA BIDEETAN EGOKITZAPEN ETA HOBEKUNTZAK EGINGO DITU MENDAROKO UDALAK

Mendaroko Udala, landa ingurunearen zaintzarekiko konpromisoan, baserri bideak biziberritzeko eta horien egungo egoera hobetzeko lanak jarri ditu martxan.

Hain zuzen Alkorta eta Sahatsu baserrietarako landa bideak -azken hau Ospain Gain futbol zelaia baino lehenago dagoen bide zatia- dira Udalak berrituko dituenak. Udalaren aurreikuspenen arabera, lan horiek, gehienera jota, urrirako amaituta egongo dira eta guztira 114.558€ko aurrekontua (BEZ barne) izango dute, 47.738,17€ Alkorta bideko lanek eta 66.820,62€ Sahatsu bidekoek.

Egingo diren lanen artean, halaber, Alkorta baserrirako bidean dagoen asfaltozko zoladura konpondu, bide ondoan zabalguneko edo bazterbideak eraiki eta kanadiar pasabideak kendu eta zolatuko dira.

Era berean, Sahatsu baserrirako bidean egun dagoen zoladura konpondu eta hormigoizko arekak egingo dira.

Izan ere, herritar asko dira herrigunetik kanpo, landa eremuan bizi direnak edota bertatik igarotzen direnak eta hain zuzen horien bizi-kalitatea hobetu zein bermatzeko eta, noski, ingurunearen zaintza eta egoera ona bermatzeko ere, burutuko ditu Mendaroko Udalak aipatu bi bideen egokitzapen eta konponketa lanak.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO REALIZARÁ TRABAJOS DE MEJORA EN LOS CAMINOS RURALES QUE VAN HACIA LOS CASERÍOS DE ALKORTA Y SAHATSU

En su apuesta por el cuidado del medioambiente y especialmente del entorno rural del municipio, el Ayuntamiento de Mendaro llevará a cabo próximamente diversos trabajos de mejora en los caminos rurales del municipio con el fin de revitalizarlos y mejorar su actual estado.

Concretamente acometerá mejoras en los caminos que van hacia los caseríos de Alkorta y Sahatsu

-antes del campo de fútbol Ospain Gain-. Atendiendo a las previsiones del Ayuntamiento, dichos trabajos estarán concluidos, como mucho, para el mes de octubre y en total, invertirá 114.558€ a su realización (IVA incluido); 47.738,17€ en los trabajos relativos al camino de Alkorta y 66.820,62€ en los relativos a Sahatsu.

En el camino hacia el caserío Alkorta, se reparará el actual asfaltado del pavimento, se crearán sobreechacos o apartaderos junto al camino y se retirarán los pasos canadienses. Asimismo, en el camino hacia Sahatsu, se reparará el pavimento existente y se realizarán cunetas de hormigón.

Y es que son muchas las personas que viven y transitan por fuera del núcleo



urbano y concretamente con el fin de mejorar y garantizar el bienestar y la calidad de estas personas, realizará, el Ayuntamiento de Mendaro, los citados trabajos.



SANTAKUTZ PAREKO UDAL PISTAK GARBITU DITU MENDAROKO UDALAK

Landa ingurunearekiko apustuan eta honen zaintza zein biziraupena bermatze aldera, Mendaroko Udalak landa eremu publikoa garbitzeko lanetan dihardu.

Horri lotuta, berriki Santakutz parean dauden udal pistak garbitu ditu, urtean poderioz, horiek sasiz bete baitira.

Lan horien helburua izan da pistak garbi eta txukun uztea, datorren urteari begira, bertan espezie autoktonoak landatu ahal izateko. Gaur egun, lursail horietan pinudi bat dago eta asmoa da hori bertatik kentzea, pinuak gaixorik baitaude eta horien egoera ez baita ona. Edozein

kasutan, Udalak, garbiketa lanak egin ostean eta beste edozein pauso eman aurretik, pinudia neurtu eta baloratuko du. Lan hori 2021ean zehar egitea aurreikusi du.

EL AYUNTAMIENTO DE MENDARO LIMPIA LAS PISTAS MUNICIPALES SITUADAS FRENTE A SANTAKUTZ

En su apuesta por el entorno rural y con el fin de garantizar su cuidado y durabilidad, el Ayuntamiento de Mendaro trabaja en la limpieza de las zonas rurales públicas del municipio.

Ligado a ello, recientemente ha limpiado las pistas municipales que se encuentran frente a Santakutz, ya que, con el paso de los años, estas se habían cubierto de matorrales.

El objetivo de las labores de limpieza es dejar despejada la zona para realizar una nueva plantación de especies autóctonas de cara al año que viene. Hoy en día, hay un pinar en dicho terreno, pinar que el Consistorio tiene intención de retirar puesto que, lamentablemente este se encuentra enfermo y en mal estado. No obstante, tras finalizar la limpieza de la zona y antes de dar ningún otro paso, el Ayuntamiento valorará y medirá el pinar. Está previsto que llevé a cabo este trabajo en 2021.

AZPILGOETAREN ERABERRITZE INTEGRALA AMAITU DU UDALAK, AUZOAREN IRIGARRITASUNA NABARMEN HOBETUZ



Udaletik azaldu dutenez, “herritarrentzako Mendaro bat eraikitzen ari gara, atseginagoa, irisgarriagoa eta oinezkoaren mugikortasun errazagoa bilatzen duena

• • • • •

Mendaro irisgarriago eta atseginago bat bilatzeko ahaleaginean, Zelaikua Plazako eraberritzeari jarraiki, Azpilgoeta auzoko eraberritze lanak amaitu berri ditu Udalak.

Udaletik azaldu dutenez, “proiektuaren ardatza pertsona ororentzako irisgarritasuna bermatzea da; beraz, eremu osoa maila berean jarri da, espaloiak jaitsiz, mailak eta beste elementu batzuk kenduz. Helburua herritarrak auzoan eroso eta seguru sentitzea da; hori dela eta,

oinetzkoentzako guneak zabaldu dira eta ibilgailuen pasabidea kendu da, ingurua oinezkoentzako gune segurua izan dadin. Herritarrentzako Mendaro bat eraikitzen ari gara, atseginagoa, irisgarriagoa eta oinezkoaren mugikortasun errazagoa bilatzen duena”.

Eraberritzearen xehetasunei ekinez, Laurel zaharra dagoen parkearen eremua handitu da, horrela, gune hori erdiguneko plaza bihurtuz. Bertan, berdegune berriak landatu dira, lorontzi, zuhaixka, banku eta abarrekin, bizikidetzeta eta belaunaldien arteko harremanak sustatzeko. Autoentzako aparkaleku kopurua mantendu da.

Funtsean, erabilgarri ez diren espaloietan, gune aldapatsuegiak eta koxka ugariak kendu dira, horretarako araudiak irisgarritasun alorrean jartzten dituen baldintzak betez. Udalak auzotarrekin hainbat bilera burutu zituen beraien ekarpenak proiektuan barneratzeko asmoz.

Udalak auzotarrekin hainbat bilera burutu zituen beraien ekarpenak proiektuan barneratzeko asmoz.

Irisgarritasun lanez gain, Ur Zerbitzuarekin elkarlanean, euri-uren eta ur beltzen sarea berritu da ere, egungo hoditeria ordezkatzuz. Lan hau proiektuaren hastapenetan ez zen aurreikusitua, eta egungo Udala Gobernuak proiektua eguneratu zuen 2020 hasieran, uren sarea ere berritze aldera.

Azpilgoeta auzo erdiguneko 2.570 m²-ri eragin dien lanek 270.786,60 euroko aurrekontua izan dute, BEZ gabe. Lanak Egurki enpresak gauzatu ditu.

EL AYUNTAMIENTO CULMINA LA REFORMA INTEGRAL DE AZPILGOETA, MEJORANDO NOTABLEMENTE LA ACCESIBILIDAD DEL BARRIO

Se han eliminado las estrechas aceras inservibles, las zonas demasiado empinadas y los numerosos peldaños, convirtiendo el barrio en accesible para todas las personas. Además de las labores de accesibilidad, en colaboración con el Servicio de Aguas, también se ha renovado la red de aguas pluviales y fecales.



En un intento por convertir Mendaro en un lugar más accesible y agradable, dando continuidad a la reforma de la Plaza Zelaikua, el Ayuntamiento acaba de finalizar las obras de reforma del barrio de Azpilgoeta.

Según explican desde el Consistorio, “el eje del proyecto es garantizar la accesibilidad para toda persona, por lo que se ha colocado toda la zona al mismo nivel, bajando aceras, eliminando peldaños y otros elementos. El objetivo es que la ciudadanía se sienta cómoda y segura en el barrio, por lo que se han ampliado las zonas

peatonales y se ha limitado el paso de vehículos para que la zona sea una zona peatonal segura. Estamos construyendo un Mendaro para la ciudadanía, más amable, más accesible y que busca una movilidad más fácil del peatón”.

Abordando los detalles de la reforma, se ha ampliado la zona del parque donde se encuentra el antiguo Laurel, convirtiendo así esta zona en una céntrica plaza. Allí se han plantado nuevas zonas verdes, con macetas, arbustos, bancos, etcétera, para fomentar la convivencia y las relaciones intergeneracionales. Se mantiene el

número de plazas de aparcamiento para coches.

Básicamente, se han eliminado aceras estrechas inservibles, zonas excesivamente empinadas y numerosos salientes, cumpliendo las condiciones de accesibilidad que para ello establece la normativa. El Ayuntamiento llevó a cabo varias reuniones con los vecinos con el fin de incorporar sus aportaciones al proyecto.

Además de las labores de accesibilidad, en colaboración con el Servicio de Aguas, también se ha renovado la red de aguas pluviales y fecales, sustituyendo la actual cañería. Este trabajo no se había previsto en los inicios del proyecto y el actual Gobierno municipal lo actualizó a principios de 2020 con el fin de renovar también la red de aguas.

Las obras, que han afectado a 2.570 m² en el centro del barrio de Azpilgoeta, han contado con un presupuesto sin IVA de 270.786,60 euros. Los trabajos han sido ejecutados por la empresa Egurki.



x
Aparkalekuen ordenazio egokia, oinezkoen mugikortasuna erraztuz.



x
Oinezkoen auzoa.



x
Herritarrentzako espazio gehiago.

Las obras, que han afectado a 2.570 m² en el centro del barrio de Azpilgoeta, han contado con un presupuesto sin IVA de 270.786,60 euros.

SANTA ANA JAIRIK EZ, BAINA KULTURAZ BLAI. ZAINDU GAITEZEN. ¡CUIDÉMONOS!

24

Larunbata

...

11:00

Padel finala, kirolgunean

17:00

Dantza emanaldia: 'Nere azalean arrotz eta Leiho zikin garbi', Pilotalekuan

18:00

DJ Pius Garagartzan

20:00

SaiaGoiat kontzertua
Garagartzan



25

Igandea

...

11:00

Puzgarriak eta ur-txirrista
Azpilgoetan

17:00

Emakume Pelota Txapelke-
tako finala eta MTE pelota
erakustaldia

20:00

Errietan taldearen kontzertua
Garagartzan



26

Astelehena

...

11:30

Meza Nagusia Azpilgoetan

12:30

Bertso jaialdia Goñatin: :
Andoni Egaña, Uxue Alber-
di, Sebastian Lizaso eta Eli
Pagola. Gai-jartzailea: Amaia
Agirre.

18:00/19:30

Las Divas del Soul Goñatin

Aurrez aforo mugatudun
ekintzen sarrerak: Udaletxean
eta Lagun Betikoak tabernan
uztailak 19tik 23ra.



MENDAROKO

AZKEN BERRIAK SAKELEKOAN



JASO MENDAROKO INFORMAZIOA

WHATSAPP BIDEZ

RECIBE LA INFORMACIÓN DE
MENDAROKO POR WHATSAPP

Animatu!



Izena emateko
Para apuntarse

www.mendaro.eus